

ERDIAROKO EUSKAL ERRI-IZENEN IDAZKERA

Orain-oraintxe arte euskaldun izan dan uritxo arabar polit baten sorketa kontatzen digun larruki bat aztertuko dugu gaur. Uritxo ori LEGUTIANO da; LEGUTIO, bertako semeek beti esan oi dioten lez.

Gaur agureak bakarrik mintzaten dira an euskeraz. Biziago zegoan gure izkuntza uri artan orain ogei ta amabost urte. Ille-ro-illero joaten nitzan ni orduan Legutio'ra bertako gaztediari itzaldi bat ematera. Gero aitorketara etortzen ziranean, gutxi-gora-bera ogei ta amar urteko neska-mutillak «euskeraz Aita», esaten zidaten. Gazteagoak ez zekiten euskeraz! Errua norena? Franko'k euskerari izan zion gorrotoarena, zati batean; Legutio'ko apaizarena, zati aundiagoan, naiz bera euskaldun izan ez bait zan euskeraren alde ezer saiatu; eta zatirik aundienean, bertako euskaldun sendiena, euskaldunok ari bait gera euskera iltzen, er-dera ederragoa, «elegantegoa», iruditzen zaigulako.

-*Legutiano «uri itxi» biurtua.* Orixe du gaitzat gure gaurko larrukiak: Legutiano uri «itxia», uri «babestua», gaztelarren izkeran «villa» biurtua. 1333'ko Jorraillaren 15'ean egm zuan «villa» IX Albontsa'k Legutiano'ko errixka.

Bazuten orduan erregeek-eta, beren dokumentuak izkera ampatuz asteko oitura. Begira nola mintzaten zaigun idazti on-tan Gaztela'ko Albontsa IX'a, garai arteko diplomaziak erabilli oi zuan «estiloaren» oarbide bat izan dezazun:

«En el nombre de Dios Padre, é Hijo, Spíritu Santo, é tres personas é un Dios verdadero, que vive é reyna por siempre jamas, é de la Bienaventurada Vrg. gloriosa Santa Maria su Madre á quien nos tenemos por Señora é por Abogada en todos nuestros fechos é á honra é á servicio de todos los Santos de la Corte Celestial por que entre las cosas que son dadas á los Reyes señaladamente le es dado de hacer gracia é merced mayormente ó se demanda con razon, é el Rey que la face debe catar en ella tres cosas: la primera qué merced es aquella que le demandan: la segunda, qual es el pró ó el daño que de ende puede venir si la ficiere: la tercera, qué lugar es aquel en que ha de hacer la merced, é como gela meresció por ende nos catando esto queremos que sepan por este nuestro Privilegio todos los homes que agora son é serán de aqui adelante como nos D. Alfonso...»

-Ona orain emen Erregeak damaizkigun erri-izenak:

LEGUTIANO	EGOIAIN	URBINA
HURUAGA	ANGUELLO	NAFARRATE
LOSU	VILLARREAL	HUVIDIA
OCHANDIANO	MARIYN	ARAMAYONA
LAS CRUCES	SALINAS DE LENIZ	GAONA
VICTORIA	ALAVA	VIZCAYA

Urci eta meatzei garrantzi bereizia ematen zaie larruki ontan. Meatzatzak, beretzako gordetzen ditu Erregeak: «é reservamos para nos minas de oro, ó de plata, ó de fierro, ó de otro metal qualquiera si las y obiere».

So-egiegun zerrenda ortako izen batzuei:

LEGUTIANO. Gaur, Araba'ko Billarreal. «Tenemos por bien mandar poblar una Villa en el lugar que dicen Legutiano... é que haya por nombre Villarreal de Alava», dio XI Albontsa'k.

HUVIDIA. Orain, Ubidea, Bizkaí'ko erria, Araba'ko mugamugan.

HURUAGA. Orain Urrunaga. Badator Burni-barren larrukian baiña «U»ren ordeaz «N»kin idatzia: HURNAGA. Ba dirudi «Urnaga» «Urrunaga»ren laburpena dala. Orrela entzungo zuan

Kukulla'ko Dekanoak. Eta pozik, oraindik geiago laburtuaz «Urnaa» esan ez ziotenean!

«U»z eta batez ere «UR»z asten diran izenak batzuetan «H»kin eta beste batzuetan «H»rik gabe ikusiko dituzu: HURIBARRI (1125'ean) eta ULLIBARRI (1332'ean) edo HURNAGA eta URBINA Kukulla'ko burni-barren zerrendako lenengo «talde» edo «merindadean» bertan. URBINA gure gaurko larruki ontan ere.

LAS CRUCES. Orra or, euskal-izen bat erderara itzulia. Idazlan onen aurrekoan, dokumentu batek aurkezten zigun LA PEDRERA aztertu genduan. La Pedrera ura ARRIOLA zan; Barrundi'ko errixka. Ba gaurko «Las Cruces» au KRUTZETA da, Aramayona eta Legutiano'ren artean dagoan atea. Dokumentuak berak ezerezen dizkigu zalantza guztiak, Legutiano'ren muga «fasta las cruces de Aramayona» izango dala bait diosku.

KRUTZETA ate baten izena dala esan dugu. ATE, erderaz «puesto» da, gaur egun Ego-Euzkadi'n «portua» eta Ipar-Euzkadi'n «bortua» ala «bortia» esan oi duguna. Milla «ate» eza gutuko dituzu noski euskalerraren zabalera osoan: Azkarate, Eulate, Belate, Oñate, Garate... Orain, euskaldun berriek mapa eta liburuetan MENDATE eta BASATE esan oi diote. Basate ez dakit nondik atera duten, eta ez dago ondo erabilia, bere zentzu berezia bai bait du gipuzkeran beintzat: «basa-sagarrondo», «sagar-zugaitz gazteak txertatzeko erabili oi dan ondo». Eta Naparroa'n ere, txertoarekin zer ikusirik baduan zerbait adierazten du itz orrek: txertapetik zugaitzondoarei irtetzen zaizkion kimak.

MENDATE baiño ugariagoa da gure toponimian ARRATE, eta ez arrazoirik gabe, gure ateak geienetan aitz eta arritartekoak izaten bait dira. ZUARRARRATE, Naparroa'n Larraundi'k Arakill'era doan bidean, Aralar mendiaren altzoan: «puerto de los Olmos», gazteleraz, «zuar» Naparroa'n eta «zumar» Gipuzkoa'n zugaitz bera bait dira.

Ain zuzen Aramaioa eta Legutiano artean dagoan bide bateri ARRATONDO esan oi zaio; bide orri berriz, Mendieta'k gorde zigun erdiaroko abesti batean, Peru Abendaño'ren abes-

tian, IZARRAGA esaten zaio.

«Izarraga'tik gora etzian joxala
Jaun Peru Abendaño'k zexola:
Oñetako lur au jabilt ikara
gorputzeko lau aragiok bezala»

«IZARRAGA» «Izar asko dagon tokia»? Ez, Izarraga ori LIZARRAGA bait da aurreko «L» galduta. Maiz gerta oi da euskal-izenetan lenen «L» galtze ori. Beste batzuetan «L»ren aurrean «E» galtzen da. Karla Marx'en alabarik gazteenaren senargaia izandakoaren abizena datorkit orain burura: LIZAGARAY. Lizagarai ori Elizagarai da. A! Lizagarai'ren andreagai izandako Marx'en alaba arek Eleanor zuan izen, baiña Tussi esaten zioten. Marx'en ume-rik gaztena zan, eta aitak eragozi zion Lizagarai'rekin ezkontzea. Neska gaixoak, urte batzuetan lotsarik gabeko gizon ezkondu batkin biziñu ondorean, bere burua il zuan oraindik neska gazte zala. «Arrazoi bat bakarrik ere ez dut aurkitzen mundu ontan bizitzen jarraitu nai izateko» idatzi zuan, egun batzuk lenxeago.

Asierako «L» galdu duten itzik ospetsuena, Napparroa'ko «Estella» uriarena da. Estella euskaraz LIZARRA dugu, baiña agian erdiaroko «L» ura galdua zualarik bertako jendeak IZARRA esaten ziolako, edo lateraz STELLA FRAXINUS baiño politagoa iruditzen zitzaielako, STELLA idatzi zuten larrukietan lumalariak. (Irakurle: lateraz «Fraximus», euskeraz «Lizarra» eta gazteleraz «Fresno» esaten zaion zugatza da).

ESKARGA. ere «puerto» dala esaten dutenak badira. Portu baten izena dugu Gipuzkoa'n ESCARGA; Zumarraga'tik Bergara'ra dijoan bide zabalean. «Puerto de Descarga» idatzi dute an gauzaren berri ez dakiten injenieruren batzuek. DESCARGA ori, «De Eskarga» da, edo len idatzi oi zanez, «D'ESKARGA». Aipatu dugun etimologi au egizkoa balitz «Puerto de Eskarga», «Puerto de Puerto» izango litzake, «Valle de Aran» «Valle de Valle» dan bezala.

EGOIAIN. Gaur lurralde bat besterik ez da, eta GOIAIN esaten diote. Ain zuzen Legutiano'ren egoan dagona! «Egoiain» en «EGO» ori «Sur» ote da ba? Nork jakin! Itzaren azkena «AIN» a-

tzizkia berriz, -etimologilari guztiei makiña bat burukomiñ eman dien atzizkia!- beste batean aztertu bearko dugu, gaur astirik ez dugu-ta.

LOSU. Albontsa XI'ak itxur-aldaturik damaigun Araba'ko ELOSU. Euskeraz ez zekialako, lumalariak «E» «LOSU»tik bereizi zigan, eta «E» ori «i» agoskatuaz erabiltzen zuten «e» kopulatiba edo lokitza zalaren ustean, idazkera tipiz eman zigan: «Nafarrete é Losu». Baiña ori egitean euskal-toki-izen bat zearo itxuraz aldatu zigan. ¡Ez dutela siniste sendorik merezi lumalari erdeldu- nek idatzirik iritxi ziazkigun erdiaroko larruki zaarrek! Gaizki entzuten zutela esaten zitzaiena!, gaizki entzuna okerrago gogoratzen zutela!, eta gaizki gogoratua larrukietan ipintzerakoan, askoz okerrago idazten zutela!!!

Elosu, burni-barren idaztian «H»z dakusgu: ELHSSU. «H» ori askotan, -gaur portugaldarrek bezala «LL» adierazteko erabiltzen bait zuten-, «Elhossu» «ELLOSU» da seguraski.

Geienetan ordea, gure gaurko larruki ontan lez, «H»rik gabe ikusiko duzu erri orren izena, eta baita Gipuzkoa'ko «ELOSUA»rena ere.

NAFARRETE. Elosu'ren alboko erria «ATE» zer dan esan dugu. Zer ote «NAFAR»? Sartu'izkiote ezur orri betortzak etimologi-zaleek!

MARIYN Gaurko MARIN da; Leniz-Aranekoa. Erdelerrian ere badan itza. Bai ote du gure Marin'ek Erdeleriko aiekin zer ikusirik. Orra or, etimologi-zaleen agiñ zorrotzentzat beste ezur mardul bat!

Latiegi'tar Bixente.